

Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Bandaren eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmena

Bergaran, bi mila eta hogeita bateko urtarrilaren hogeita bederatzian, ondorengoak

BILDU DIRA

Alde batetik, Ainhoa Lete Zabaleta andrea, Bergarako Udaleko Behin-behineko Alkatea, Bergarako San Martin Plaza, z/g-ean egoitza izan eta P-2007900-J I.F.K. zenbakia duen Bergarako Udalaren izenean.

Beste aldetik, Enrique Churruca Larrañaga, 72446301G NAN zenbakia duena, Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Banda elkartearen lehendakaria, elkartearen izenean (egoitza soziala Bergaran Espoloia pasealekua z/g-an duena eta IFZ zenbakia G75184853).

Enrique Churruca Larrañaga jaunak zinpean alkate jaunaren aurrean aitortu ondoren bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debekuko kasuetan eta ezta Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan ere sartuta, bi aldeek elkarri aitortzen diote behartzeko gaitasuna eta, hala, honako aurrekari hauek azaltzen dituzte.

AURREKARIAK

I. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak) 25.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriak bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta zerbitzu publikoak eman ditzake, artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

II. 7/1985 Legeak berak 25.2 artikuluan jasotakoaren arabera, udalaren berezko eskumena da kultura eta kultur ekipamenduak sustatzea.

III. Bergarako Udalak udalerrian elkartegintza bultzatu nahi du sustatu ahal izateko kultura orokorrean, musika, kirola, hezkuntza, ohitura zaharrak, aisialdia asetzea eta oro har ongizatea zabaltzea Bergarako herritarren artean.

IV. Kultur sustapenaren alorrean, garrantzi handia du ekimen pribatuak eta, horren barruan bereziki, irabazi asmorik gabeko entitate herrikoiek; izan ere, interes publikoa edo soziala duten jarduerak antolatzen dituzte, eta horiekin osatu egiten dituzte udal administrazioak garatutako jarduerak.

V. Herri-administrazioek jarduteko dituzten modalitateen barruan, garrantzi handia du herritarrek eurek abiatzen dituzten eta interes publikoa edo soziala duten jardueren sustapenak; udalaren zuzeneko jardunaren osagarriak baitira.

Zehazki, dagozkien hitzarmenen bidezko diru-laguntzei esker, Udalak parte hartzen du partikularren ekimenetik abiatu eta partikularrek eurek antolatutako jardueren finantzaketan, betiere jarduerok interes publiko edo soziala dutela iritziz gero.

VI.- Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Banda elkarteak xede nagusitzat honako hau du: musikarekin lotutako edozein adierazpen sustatu, interpretatu eta zabaltzeko, batez ere



Bergaran. Horretarako musika bandaren kontzertuak eta bestelako emanaldi batzuk antolatu izan ditu eta antolatzen jarraitu nahi du, eta 2021erako duen aurrekontuaren berri eman du.

VII.- Bergarako Udalaren nahia da "Bergarako Musika Banda" elkartearekin elkarlanean aritzea eta, horretarako, diruz laguntzea urtean zehar garatzen dituen jarduera musikalak, horren funtzionamendu-gastuak eta, horretaz gain, lokalaren erabilera, instrumentuen erabilera eta abar arautzea.

Horrenbestez, alde biek ondorengo klausulak dituen hitzarmena adosten dute:

KLAUSULAK

LEHENA.- "Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Banda" elkarteak honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- Urtean zehar hainbat emanaldi eskainiko ditu doan; zehazki, hitzarmen honetako I. Eranskineko 1. puntuan jasotakoak.
- Parte hartuko du, halaber, I. Eranskineko 2. puntuan aurreikusitako ekitaldietan.
- Ekitaldi edo emanaldi hauetara guztietara, emanaldia artistikoki egoki emateko moduko kide-kopurua joango da, bandako sekzio musikal guztietatik behar besteko jole-kopuruarekin.
- Elkarreko zuzendaritza artistikoaz arduratuko den pertsonak zuzendaritza hori egoki garatzeko moduko prestakuntza eta kualifikazio musikala izango du, eta gaitasun artistiko eta profesionala bermatuta geldituko da.
- Jole-kopuru nahikoa izatea, musika-bandatzat hartu ahal izateko behar diren instrumentu guztietan eta bakoitzean behar beste jole izanda; kopurua 60-70 kide izatea aurreikusten da.
- Musika-bandako kide guztiek horretarako behar den prestakuntza eta kualifikazio musikala izan beharko dute eta denak Bergarako biztanleak eta ahal dela Bergarako Musika Eskolan ikasitakoak izan beharko dira, ez balego behintzat arrazoi objektibo eta justifikatua horrela ez izateko.
- Gutxienez euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abarretan. Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena erdarakoaren aurretik eginez.

Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarakoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak hizkuntzaren aldetik zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.

- Gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).

Diruz lagundutako ekintzen publizitatean (kartelak, esku-programak...), Bergarako Musika Banda elkarteak Bergarako Udalaren laguntza duela adieraztea.



- Aplikagarri zaizkion betebeharrak legalak betetzea. Elkarteari betebeharrak horiek beteko ez balitu, horrek ez dio ekarriko inolako erantzukizunik Bergarako Udalari.
- Hitzarmen honen xedeko jardueretan, Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Bandak eraman ahal izango du udalak zeditutako estandarte (II eranskinean jasotzen dena).

BIGARRENA.- Bergarako Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- Elkarteari lokal bat erabiltzen lagako dio, hirugarren klausulan zehaztutako baldintzetan.
- Elkarteari erabiltzen lagako dizkio II. eranskinean zehazten diren udal jabetzako instrumentuak, partiturak, uniformeak eta abar. Lagapen horren baldintzak laugarren klausulan datoz zehaztuta.
- Elkartearen esku jarriko ditu hitzarmen honetako eranskineko 1. atalean jaso diren emanaldiak garatu ahal izateko beharrezkoak dituen eta udalarenak diren lokalak eta kokapenak; eta horietan egokitze-lan puntualak egingo ditu (lokalak, aulkiak, argiztapena, eszenatokia eta antzekoak). Era berean, udal lokaletan doan emango diren kontzertuak gertatzeko bertan entsegu orokorrak egin ahal izatea baimendu eta erraztuko zaio, beti ere aurrez udaleko Kultura zerbitzuko arduradunekin koordinatuta.
- Urtero dirulaguntza bat ematea elkarteari urtero aurkeztuko duen aurrekontua aztertuta.

Kontuan izanda hitzarmen honetan onartzen dela bandak gehienez 70 kide izatea, udalak emango lukeen urteko gehienezko dirulaguntza da 102.217,01€, honela banatuta:

- Instrumentu eta osagarri erosketa eta konponketarako: 6.000€
- Partitura erosketa, fotokopia, kontzertu programa, bulego materiala eta gainontzeko material inbentariaezina: 2.000€
- Uniforme erosketa eta konponketarako: 2.000€
- Aseguru, aholkularitza, banku eta telefoniarako: 1.375€
- Musikarien dietentzako: 50.610 (70 musikari x 60.25€/hileko)
- Zuzendari ordearen gastuei aurre egiteko: 1.800€
- Zuzendari musikalaren gastuei aurre egiteko: 38.432,29€.

Azken honi ordainsarien kontzeptuen artean antzinatasuna ere balegokio, beti ere kargu horretan hiru urte efektiboki betetzen dituenean, dirulaguntza handituko zaio horren ordainketarako, gehienez ere 630 euro/urteko.

Dena den kontuan izanda 2021ean 65 musikari daudela, 2021ean guztira gehienez 98.602,29€ dirulaguntza emango zaio honela banatuta:

- Instrumentu eta osagarri erosketa eta konponketarako: 6.000€
- Partitura erosketa, fotokopia, kontzertu programa, bulego materiala eta gainontzeko material inbentariaezina: 2.000€
- Uniforme erosketa eta konponketarako: 2.000€
- Aseguru, aholkularitza, banku eta telefoniarako: 1.375€
- Musikarien dietentzako: 46.995€ (65 musikari x 60.25€/hileko)
- Zuzendari ordearen gastuei aurre egiteko: 1.800€
- Zuzendari musikalaren gastuei aurre egiteko: 38.432,29€.



Goian jasotako kopuruak eguneratuko dira 2022tik aurrera gehienez ere aurreko urte naturaleko KPlarekin eta kontuan izanda musikarien kopurua. Horretarako elkarteak aurreko urteko azaroaren 30a baino lehen hurrengo urteko aurrekontua eta musikarien zerrenda aurkeztuko ditu eta dagokion batzorde informatzaileak aztertuta, proposamena bideratuko dio alkateari, honek erabakitzeko.

Diru-laguntzak arautzen dituzten klausulak bosgarrenetik bederatzigarrenera artekoak dira —biak barne—.

- Egile eta Editoreen Elkartetik (SGAE) sor daitezkeen gastuak bere gain hartuko ditu, betiere hitzarmen honen xede diren eta I. eranskinean jasota dauden jardueretik.
- Lehen eranskinean programatutako jardueren publizitatearen gestioa eta gastuak bere gain hartzea. Horretarako, I. eranskinean aipatutako jarduerak Udalaren web orrian eta ekitaldien egitarauan argitaratuko dira eta herriko komunikabideetara ere bidaliko da informazioa.

HIRUGARRENA.- Udalak elkarteari jakinarazi dio Bergarako Musika Eskola elkartearekin hitzartuta duela Musika Eskolan lokal baten lagapena, bertan Bergarako Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak entseiatu ahal izateko; ondorioz, udalak lokal hori erabiltzen lagatzen dio, doan eta era prekarioan, bertan bere jarduera musikalaria buruzko entseguak egiteko, horri lotutako instrumentu, partitura edo beste ekipamendua gordetzeko, eta zuzendari musikalaren lantoki bezala erabiltzeko, betiere ondoren zehazten diren baldintza hauek betetzekotan, eta elkarteak onartu egiten ditu baldintzak:

- Inola ere ezingo da erabili beste helburutarako, ez bada udalaren berariazko baimenarekin.
- Erabiltzeko egiten den lagapen edo zesio honek gehienez ere hitzarmen honek duen iraupena izango du. Dena den, kontuan izanda lokal hori Musika Eskolarena dela, edozein momentutan aurrez abisatuta, zesio hori bertan behera utzi ahal izango du udalak. Horrelakorik gertatuz gero, udalak elkarteari beste lokal bat lagako dio, oraingo honen antzeko ezaugarriak izango dituen.
- Lokala, bandako zereginetarako bakarrik erabili ahal izango du bandak, zuzendariaren lanordua eta bandaren entsegu ordutan.
- Dauden baliabideak optimizatzeko asmoz, udalak lokal hori erabiltzen beste talde edo entitateei ere laga ahal izango die, elkartearen entsegu ordu eta zuzendariaren lanorduak kontuan hartuz.
- Lokalean hobekuntzak egitekotan Bergarako Udalaren oniritzia (idatzizkoa) beharko da. Edozein modutan, egindako obrak lokalaren onerako geratuko dira eta ez jabeak ezta udalak ere dituzte inoiz ordainduko.
- Bergarako Udalak edozein momentutan ikuskatu ahal izango du lokala, kontserbazio-egoera ziurtatzeko.
- Dokumentu hau sinatzean lokaleko, eraikuntzaren sarrerako eta lokaleko giltza bat ematen zaio Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Bandako lehendakariari eta erabilera zuzenaren erantzule egiten zaio.

Udalak ez du bere gain hartzen lokalean egon daitezkeen elkartearen edo bere kideen materialen kalteen, lapurreten edo hondatzeen erantzukizunik



LAUGARRENA.- II. Eranskinean zehazten diren udal jabetzako instrumentuak, partiturak, uniformeak eta abar elkarteari lagatzeko orduan, honako baldintza hauek betetzekotan egingo da, eta elkarteak onartu egiten ditu baldintzok:

- Lagatako instrumentuak eta gainontzeko material guztiak behar den moduan gorde eta erabili beharko dira, beti erabilgarri egoteko era egokian mantenduz. Eta hortik eratorritako gastuei aurre egin beharko diete.
- Udal jabetzako instrumenturen bat erabilgarri ez delako erretiratu behar denean, udalari jakinarazi beharko zaio, hitzarmen honi erantsitako inbentarioan horren baja proposatuz, eta baja onartutakoan inbentarioa gaurkotu egingo da. Baja-proposamenarekin batera, udalari jakinarazi egingo zaio ea instrumentua Bergarako Musika Eskolak erabiltzeko modukoa den eta ea interesik duen; eta horren ondorioz, udalak dagokion erabakia hartuko du.
- Era berean jakinarazi beharko du erabilgarri ez dauden gainontzeko elementuen baja-proposamena (uniformeak...), eta inbentarioa gaurkotu egingo da.
- Elkarteak berak eskuratutako instrumentu, jantzi etab-ek, udal jabetzakoen baldintza berdinak edukiko dituzte. Inbentarioan jasoak izango dira, eta Bandarentzat baliagarri ez direnean, Musika Eskolari eskainiko zaizkio doako lagapenez bota aurretik, badaezpada, beti ere dena idatziz jasota eta udalari jakinaraziz. Hau da, baldintza hau betetzen dela bermatzeko, idatziz jasota geratu beharko da eskaintza eta Bergarako Musika Eskolaren erantzuna.

BOSGARRENA.- Urteko diru-laguntza lau zatitan banatuta ordainduko da. Konturako ordainketak hiru hilabete natural bakoitzaren lehen astean egingo dira, transferentzia bidez, elkartearen kontura transferentzia eginda.

Hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen, elkarteak ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- Diruz lagundutako ekintzen memoria.
- Emaizta ekonomikoaren memoria, hau da, zerrenda sailkatu bat, jardueraren gastuak eta inbertsioak jasoz, eta bertan zehaztu beharko dira hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, horrelakorik balego, ordainketa-data; eta bertan, era berean, zehaztu egin beharko dira diruz lagundu den jarduera hori finantzatzeko izan dituzten beste diru-sarrera edo diru-laguntzak, adierazita bakoitza zenbatekoa izan den eta nondik etorri den. Memoria erreala dela adierazten duen zinpeko aitortpena gehituko zaio, elkarteko ordezkariak sinatuta.
- Faktura, agiri edo errezipoen kopiak eta horien ordainketa-agirienak ere bai.
- Jasotako beste diru-laguntzen agiriak edo, diru-laguntzarik jaso ez bada, zinpeko aitortpena.
- Erositako instrumentuen zerrenda eta baja ematea proposatzen duten udalaren jabetzako instrumentu edo gainontzeko materialen zerrenda, 4. puntuan zehaztutako dokumentazioarekin batera.

Elkarteak, aintzat hartzeko moduko arrazoirik aurkeztu gabe, ez baditu programatutako jarduerak edo hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak betetzen, zati batean bada ere, Udalak erabaki ahal izango du elkarteari jasotzeko geratzen zaion diru-laguntza edo horren zati bat ez ordaintzea, eta baita jadanik kobratuta duen dirua (guztia edo zati bat) itzularaztea ere.



Erabaki hau hartu aurretik interesatuari entzungo zaio.

Bestalde, elkarteak justifikatutako gastua aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa balitz, Udalak eskatu ahal izango du diru-laguntzaren zati bat itzultzea, baina gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa izan bada, Udalak ez du diru-laguntza berririk emango.

SEIGARRENA. - Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke, eta Udalari aurkeztuko zaion txosten ekonomikoan sarreretan azaldu beharko da.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (Udalarenak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere gastua baino altuagoa izan.

ZAZPIGARRENA. - Diru-ekarpena egiteko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke Bergarako Udalak emandako kopurua aldatzea.

ZORTZIGARRENA. - Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-ekarpenak bete beharreko baldintzak bete gabe gelditzea.
- b) Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

BEDERATZIGARRENA - Hitzarmen honetan diru-laguntzaren inguruan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Bergarako aurrekontuetako udal araua.

HAMARGARRENA. - Alde bietako batek honako hitzarmen honetan harturiko betebeharretako edozein beteko ez balu, beste aldeak hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.

HAMAIKAGARRENA. - Udalak egoki iritziz gero, kontzerturen bat eskaintzea errekeritu ahal izango dio, ospakizun, inaugurazio edo antzeko ekitaldiren batean. Dena den, alde biek adostu ahal izango dute ekintza horien truke l. Eranskineko 1. puntuan aurreikositako batzuk ez egitea.

HAMABIGARRENA. - Elkarteak "Begarako Musika Banda" izendapena izateak ez dakarkio inolako loturarik udal honekin, hitzarmen honetan berariaz sinatutakotik aparte.

HAMAHIRUGARRENA. - Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta indarrean egongo da sinatzen den egunetik hasi eta 2024ko abenduaren 31ra arte.





Bergarako
Udala

Eta adostasun-gisa, parte-hartzaileek agiri hau hirukoiztuta sinatzen dute, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean, eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Sin.: Ainhoa Lete Zabaleta
Bergarako Udaleko
Behin-behineko alkatea



Sin.: Enrique Churruca Larrañaga
Elkarteko presidentea

Sin.: M^a Concepcion Ugalde Izeta
Udal Idazkaria

I. ERANSKINA

1.- Urtean zehar, hamaika kontzertu eskaintzea + danborrada + pasakalleak). 2021. urtekoak honako hauek izango dira:

Urtarrilak 24 Kontzertua (Frontoian)

Martxoak 14Kontzertua (Frontoian)

Apirilak 25 Kontzertu didaktikoa (Frontoian)

Maiatzak 21Bergarako jaiak Kalejira

Maiatzak 23..... Bergarako jaiak Kontzertua (Espoloian)

Ekainak 27San Pedro/San Martzial Kalejira
Kontzertua (Espoloian)

Uztailak 18Santa Marina.....Kalejira + Kontzertua (Frontoian)

Irailak 15 San Martin jaiak..... Tanborrada

Irailak 16 San Martin jaiak Kalejira
Kontzertua (San Martin Plazan)

Urriak 17Kontzertua (Frontoian)

Azaroak 21 Santa ZeziliaKalejira + Kontzertua (Frontoian)

- Urte bakoitzeko azaroaren 30a baino lehen, hurrengo urterako plana aurkeztu beharko du "Bergarako Musika Banda" elkarteak, udalak onartu dezan.
- Aktuazio hauen egunak eta ordutegiak aldatu ahal izango dira, beti ere udalarekin adostuta.

2.- Bergarako Musika Bandak parte hartuko du Gabonetako eta Karnabaletako kontzertuetan, baina horietarako baldintzak aktuazio bakoitzaren aurretik zehaztuko dira.

3.- Aurreko bi puntuetan jasotako ekintzetan udalak jarriko du azpiegitura, beharko balitz anbulantzia, argindar horniketa eta kontsumoa, garbiketa, materialen garraioa eta kontzertuetarako prestaketa-lanak.






Bergarako
Udala

II. ERANSKINA 2021ean instrumentuen zerrenda

INSTRUMENTUA	JABETZA (Udala)
1 Perkusioa	banda
2 Perkusioa	banda
3 Perkusioa	banda
4 Perkusioa	banda
5 Perkusioa	banda
6 Bajo	Alexander 173 mi 8019 / Trombón Holton
7 Bajo	Rott
8 Bajo	Rott
9 Contrabajo	Musima 1413 MCB2
10 Saxo barítono	Grassi 50652
11 Bombardino	propio
12 Bombardino	Miraphone
13 Bombardino	Cerveny 150223282
14 Bombardino	Alexander
15 Trombón	Bach LT42BG 161356
16 Trombón	propio
17 Trombón	propio
18 Trombón	propio
19 Trompa	propia
20 Trompa	Holton 659181
21 Trompa	propia
22 Trompa	propia
23 Trompa	propia
24 Trompeta	Stombi 0117141
25 Trompeta	propia
26 Trompeta	propia
27 Trompeta	propia
28 Trompeta	propia
29 Fliscorno	Stombi 9911742 / trompeta propia
30 Fliscorno	Holton 633708 / trompeta propia
31 Saxo alto	propio
32 Saxo alto	propio
33 Saxo alto	propio
34 Saxo alto	propio
35 Saxo tenor / Zuzendari ordeia	Selmer 391400 / clarinete Buffet 1113AG
36 Saxo tenor	Yamaha 019171
37 Saxo tenor	Selmer 623342 / Yamaha (bixak dauzka)
38 Fagot	Moning 17



39 Clarinete bajo	Gara 042009086 / clarinete Buffet 1113AG
	Buffet 113AG
40 Clarinete	F568668
41 Clarinete	Buffet 113AG 363388
42 Clarinete	Buffet
	Buffet 113AG
43 Clarinete	F350796
44 Clarinete	propio
45 Clarinete	Buffet F391411
46 Clarinete	Buffet E13B650
47 Clarinete	Buffet RC B650
48 Clarinete	Buffet F559454
49 Clarinete	Buffet F364697
50 Clarinete	Buffet K113797
51 Clarinete	Buffet K224204
52 Clarinete	propio
53 Clarinete	Buffet R13 F364697
54 Clarinete	Buffet R13 F377355
55 Clarinete	propio
56 Clarinete	propio
57 Clarinete	propio
58 Oboe	propio
59 Oboe	propio
60 Oboe	propio
61 Flauta	propia
62 Flauta	Mizayawa 80467
63 Flauta / flautin	propia / flautin 0702
64 Flauta	propia
65 Flautin / flauta	Emerson 596 / flauta propia
66 Zuzendaria	

[Handwritten signature]

Cello
Cello
Clarinete

propio
propio
propio

baja temporal
baja temporal
baja temporal



[Handwritten signature]